| | | | |
|---|---|---|---|
| **Ardatz estrategikoa:** | **1. ardatza.- Gardentasuna eta Gobernu Ona** | **Proiektua:** | **1.4. Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria** |
| **Deskribapena** | Euskadiren Gobernagarritasunerako proposamen bat egin nahi da, administrazioen eta gizartearen arteko harremanak birformulatzeko, gizarteko sektoreekin, eragileekin eta herritarrekin elkarrizketa-bideak eta bitartekaritza- eta ebaluazio-prozesuak abiarazten dituzten prozesuak eta neurriak definituz eta sustatuz. | | |

| **Helburu orokorrak:** | **Helburu operatiboak:** | **Adierazleak:** |
|---|---|---|
| • Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuri baten oinarriak definitu, adostu eta kontrastatu ahal izateko prozesu bat diseinatzea eta aurrera eramatea | • Liburua gizarteari aurkeztuta egotea 2014ko urtea amaitzerako<br>• Parte-hartzea bultzatzen duten 2 edo 3 proiektu pilotu berritzaile sustatzea | • Demokraziaren eta herritarren partaidetzaren liburu zuria, hura egiteko prozesu oso parte-hartzaile baten ondoren jendaurrean aurkeztua. |

**Egikaritzea:**

- 2014ko abenduaren 18an, euskal gizarteari aurkeztu zitzaion Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzaren Liburu Zuria. 450 pertsonak baino gehiagok eta 150 entitatek baino gehiagok hartu zuten parte.
- Liburu Zuriak dagoeneko n ari diren zabalkunderako hainbat konpromiso hartzen zituen barne; besteak beste,
  - Proiektu pilotuak garatzea Eusko Jaurlaritzan (n): Lurralde-antolamenduaren gidalerroak egitea; Berdintasun Legearen ebaluazio partekatua; Elkarlan Zuzenbideari bultzada ematea; Herritarren zientziari bultzada ematea)
  - Balio publikoa sortzeko herritarren ekimenengatik sariak emateko deialdia. Ebatzi dira 2015 eta 2016ko Elkarlan sarien deialdiak http://www.gardena.euskadi.eus/transparencia/-/premios-elkarlan/
  - Gida bat egitea herritarren parte-hartzeko prozesuak egikaritzeko (amaituta, jendaurrean zabalduta eta prestakuntza bidezko barne-ezarpena eginda). Prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeko eredua egitea.
  - Osasunean parte hartzeko Gida bat argitaratzea (amaituta eta jendaurrean zabaltzeko eta antolakundean ezartzeko prozesuan).

Ekimen honen jarraipenari buruzko informazio gehiago hemen: Irekia eta Gardena

| **Arduraduna:** | **Aurrekontua:** | **Gastu erreala:** | **Aldi baterako aurreikuspena:** | **Egikaritzeko benetako epea:** | **Egoera:** | **Balorazioa:** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gidaritza politikoa: Lehendakaritza<br>Bultzada operatiboa: DACIMA | 2014: 40.000,00 €<br>2015: 00.000,00 €<br>2016: 00.000,00 €<br>GUZTIRA: 40.000,00 € | 2014: 26.767,36 €<br>2015: 34.734,30 €<br>2016: 51.310,79 €<br>GUZTIRA: 112.812,45 € | | Epea: Urte 1<br>Hasiera: 2014ko urtarrila<br>Amaiera: 2016ko abendua | ■ Amaitua<br>☐ Aribidean<br>☐ Hasi gabe | ■ Positiboa<br>☐ Hala-nolakoa<br>☐ Negatiboa |

**Oharrak:**